

ONDARROAKO XXXIX. ITSAS-ZEHARKALDIA 2026 ELENA FERNANDEZ ITURRIOTZ MEMORIALA



ANTOLATZAILEA:
Ondarru Igeri taldea

ERAKUNDE LAGUNTZAILEA:
Ondarroako Udala

1.- DATA ETA LEKUA:

2026ko uztailaren 12an, Ondarroako Arrigorri hondartzan.


2.- ORDUTEGIA:

Gazteak: 10:30 (600 m)


Nagusiak: 11:00 (1600m)

3.- EGITARAUA eta IBILBIDEAK:

Gazteen zeharkaldia: 10:30etan emango zaie IRTEERA gazteei (mutilak eta neskak) irudiko ibilbide motza izanik egin beharrekoa.



Nagusien zeharkaldia : 11:00etatik aurrera, eta 5 minutuko tartearekin, 3 IRTEERA emango zaie emakume-gizonei. Irudiko ibilbide luzea egin beharko dute.



Igerilariaren **ARDURA** da irteera gunera hurbiltzea, irteera orduan antolatzaileen eta irteera epailearen agindupean egoteko.

4.- PARTAIDETZA:

4.1.- Kategoriak:

Gazteen zeharkaldia (600m): 2011-2017 urteen artean jaiotakoak (biak barne).

- BENJAMIN: 2015, 2016 eta 2017 jaiotakoak.
- ALEBIN: 2013-2014 jaiotakoak.
- INFANTIL: 2011-2012 jaiotakoak.

Nagusien itsas-zeharkaldia (1600m): 2010. urtean edo lehenago jaiotakoak.

- JUNIOR: 2008-2010 jaiotakoak.
- SENIOR: 1977-2007 jaiotakoak.
- BETERANOA: 1926-1976 jaiotakoak.



5.- INSKRIPZIOAK:

- 5.1.- Izen emateak www.kronoak.com web orriaren bidez egingo dira.
- 5.2.- Gazteen itsas zeharkaldirako izen-emateak 10 € balioko du.
- 5.3.- Nagusien itsas zeharkaldirako izen-emateak 30 € balioko du.
- 5.4.- Izen-ematea egiteko epea uztailaren 5erarte izango da.
- 5.5.- Izen ematea behin-betikoa izateko, inskripzioa ordainduta egon behar da.
- 5.6.-Egunean bertan apuntatzeko aukera egongo da 10€ gehiago ordaindu ezker, hau da, gazteen itsas-zeharkaldian egunean bertan izena emateak 20€ balioko du eta nagusien kasuan 40€ izango dira.
- 5.7.- Parte-hartzaileen arteko aldaketa ez da posible izango. Inskripzioa pertsonala eta transferiezina da, eta ezingo du erabili izen-ematea egin ez duen beste inork. Edozeinek bere plaza beste norbaiti ematen badio, ekitaldiko istripu baten kasuan edo horrek ekar ditzakeen istripuen aurrean, bera izango da arduraduna. Antolakuntza ez da arduradun egingo.
- 5.8.- 9.00etan hasiko da dortsalen markatzea eta txanoa eta kamiseten banaketa, eta zeharkaldia hasi baino ordu erdi lehenago amaituko da.

6.- IRTEERAK:

Gazteak: Irteera bakarra 10.30ean

Nagusiak: 3 irteera, 11.00etan hasita

- 1. TXANDA :** 24 minutu baino gutxiago aurreikusten dutenak
- 2. TXANDA:** 24-30 minutu artean aurreikusten dutenak
- 3. TXANDA:** 30 minutu baino gehiago aurreikusten dutenak

7.- PROBA ETETEA. ARRISKU EZA:

- 7.1. Antolakuntzak ibilbidea aldatzeko eta irteera ordua aldatzeko ahalmena izango du. Proba ezinbestez (kanpo arrazoiengatik) eteten bada, izen-emateengatik ordaindutakoa ez da itzuliko.
- 7.2. Uraren tenperatura 16 gradutik behera badago, proba bertan behera utziko da.
- 7.3. Ibilbidean zehar piraguak eta batelak egongo dira .

8.-BAJAK:

- 8.1.-Ezin da izen ematea ezeztatu, baina titular aldaketa bat egiteko aukera izango dute, epe-muga uztailaren 5a izanik.
- 8.2.- Igerilariak ezingo balu igeri egin, ez da dirua itzuliko baina kamiseta eta txanoa jaso ahalko ditu.



9.- EDARI ETA JATEKOEN HORNIDURA

9.1.- Proba amaitutakoan antolakuntzak eskainitako edateko eta jateko hornidura eremua egongo da.

10.- SAILKAPENAK eta SARIAK:

10.1.- Sailkapen orokorraz gain, kategoria bakoitzeko eta sexuaren araberako sailkapena ere izango da eta www.kronoak.com web orrian argitaratuko dira.

10.2.- Sariak:

Parte-hartzaile guztiek jasoko dute oroipen domina eta kamiseta bana. Kamisetaren neurria ezin dugu bermatu igerilariak nahi duena izango denik.

Garaikurra kategoria bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuentzat, emakumezko zein gizonezko mailan (benjamin, alebin, infantil, junior, senior eta beteranoa).

Txapela sailkapen orokorreko nagusien itsas-zeharkaldiko lehen sailkatuari, emakumezko zein gizonezko mailan.

Garaikurra Ondarru Igeri Taldeko nagusien itsas-zeharkaldiko lehen sailkatuari (gaur egungoa edo izandakoa), emakumezko zein gizonezko mailan.

Garaikurra nagusien itsas-zeharkaldiko parte hartzaile nagusienari, emakumezkoa eta gizonezkoa.

11.- ZIGORRAK eta AZKEN AIPAMENA:

11.1.- Antolakuntzak beharrezko ikusten dituen zigorrak jarri ahal izango ditu frogatutako edozein irregulartasunen aurrean, izan egiaztatutako denboren inguruan zein beste edozein arlotan.

11.2.-Debekatuta egongo da honako materialak erabiltzea, FINA araudian ezarritakoez gain:

- Neoprenozko trajeak
- Aletak.
- Snorkel tuboak.
- Erlojuak.
- Eskumuturrekoa, lepokoak edo tankerakoak.

11.3.- Antolakuntzak lehiaketa honetarako lehiaketa zuzendari bat izendatuko du. Zuzendari hori izango da zeharkaldiko aginte nagusia lehiaketaren antolaketan eta lehenengo epaileari ez dagozkion beste eginkizunetan.

11.4.-Proba egiteko, sorbaldan dortsalaren zenbakia markatzea ezinbestekoa izango da.

11.5.- Antolakuntzak ohartarazten du proba honek bere gogortasuna duela, eta ur irekietako itsas zeharkaldiek dauzkaten arrisku guztiak dituela. Hori dela eta, prestakuntza egokia izatea eskatzen da, baita osasun egoera ona izatea ere. Beraz, baldintza egokietan bukatzeko gai ez direnei izena ez emateko aholkatzen zaie.



Antolakuntza salbuetsita geratzen da zeharkaldiak parte-hartzaileei eragin diezazkiekeen kalte eta erantzukizunetatik. Izena ematen duten unetik parte-hartzaileak izango dira beren buruaren arduradun.

Araudi honetan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, honakoak hartuko dira kontuan: Bizkaiko Igeriketa Federazioaren (BIF) eta Igeriketako Espainiako Federazioaren (RFEN) ur irekietako lehiaketan araudia .

Sailkapeneko datuetan (izena eta abizena) zein komunikazioko edozein arlotan (argazkia) bere pribatutasuna mantendu nahi duen oro jar dadila harremanetan antolakuntzarekin.

Ondarroan 2026ko maiatzean